

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/10/29

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Iragorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Ezin etorria adierazi dute:

Olaia Lasa Olaziregi
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalaren artean etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko lankidetzaren hitzarmenaren luzapena onartu zen.
3. Bide edo zoru publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal-ordenantzari hasierako onespina eman zitzaion.
4. Klima eta energiaren aldeko Alkatetzen Itunera atxikitzea erabaki zen.
5. Altzibarko gune estalirako urte anitzeko kreditua onartu zen.
6. OIartzungo Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako Igerilekua udal instalazioen zerbitzu kontratuari bigarren luzapena eman zitzaion.
7. 2025-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2. Aldaketari hasierako onarpina eman zitzaion.
8. Bidaiariak auto-taxiz garraiatzeko zerbitzuaren 2026. ekitaldiko tarifak onartu ziren.



OIARTZUNGO
UDALA

9. 2025-KALD-000006-00 Kreditu Aldaketaren berri eman zen.
10. 2025-KALD-000007-00 Kreditu Aldaketaren berri eman zen.
11. 2025-KALD-000008-00 Kreditu Aldaketaren berri eman zen.

Esan-eginak eta erabakiak

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA

2025eko irailaren 24ean egindako bilkurari dagokion akta onartu da aho batez, aldeko 15 botoren emaitzarekin.

-II-

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA UDALAREN ARTEAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA

Etxez etxeko zerbitzua udal zerbitzu bat dela dio Alkateak, non Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmen bidez diruz laguntzen duena. Sinatutako azken hitzarmenaren baitan, 2025eko irailaren 31ean amaitu zen hasierako indarraldia eta Diputatu kontseiluak irailaren 10ean hartutako erabakian baitan etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko lankidetz hitzarmena urtebetez luzatzea onartu zuen.

Bestalde, hitzarmenaren bidez jasoko den dirulaguntzak, zerbitzu honen %14-a finantzatzen du, %78-a udalak jartzen du eta %8-a erabiltzaileek ordaintzen duten kuotarekin finantzatzen da.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta Herritarrak Batzordeak, 2025eko urriaren 15ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, udalerrian mendekoen kalifikazio dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmenaren luzapena onartzea, 2026eko irailaren 30 arte, hitzarmenean ezarritako gainerako termino eta baldintza berdinetan.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea luzapena sinatzeko, baita bere osagarri diren beste edozein dokumentu sinatzeko ere.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

-III-

BIDE EDO ZORU PUBLIKOAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA. HASIERAKO ONARPENA

Orain arte mota honetako ordenantzarik ez dela egon argitzen du Alkateak, baina Pandemia garaian bizitako egoera dela eta, herritarren ohiturak aldatu eta terrazei erabilera gehiago ematen zaiela adierazten du.

Tabernek terrazen bitartez ematen duten zerbitzuaren garrantziaz jabetuta daudela aipatzen du Alkateak. Gaur egun sozializaziorako gune bilakatu direla eta onura bat sortzen dutela herritarren bizikidetzaren artean, baina aldi berean, erabiltzen den espazioa publikoa izanik, beharrezkoa ikusten da erabilera hau arautzea. Gaur egun, erabiltzaile eta bizilagunen artean ez dagoela gatazka handirik dio Alkatek, baina hemendik aurrera terrazen hazkuntzak bizikidetzan arazoak sor ditzakeela eta ordenantza bat egitea proposatzen da.

Azpitarratzen du, ordenantza egiten hasi baino lehen, zehazki udaberrian, udala tabernariekin bildu zela, beraien iritzia eta kezak kontutan edukitzeko eta horiek jasota osatu dela ordenantza. Horretaz gain, kontutan eduki dira beste hainbat herrietako ereduak.

Beraz, lehen aipatutakoa kontutan edukita, ordenantzan terrazen ordutegiak, hauen itxura, txukun mantentzeko irizpideak, hizkuntza irizpideak hau da, bertako karta, kartelak etab. euskaraz egotea eta gauez terrazak nola jaso beharko diren agertzen da batik bat.

Aurreko guztia ikusita, kontu-hartzailearen txostena eta idazkariaren txostena ikusita eta Lurralde batzordeak 2025eko urriaren 15ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehen.- Hasierako onespena ematea Oiartzungo bide edo zoru publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal-ordenantzari, eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, administrazio-espediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan espedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendeari erakusgai egoteko epea igarotzen bada inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

-IV-

KLIMA ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATETZEN ITUNERA ATXIKITZEA.

Legealdi hasieran Energia Plana onartu zela dio Alkateak eta Klima eta Energiaren aldeko Itunaren inguruan, tokiko eremutik ekintza klimatikoak eta energetikoak sustatzen dituen Europa mailako ekimena dela azaltzen du. Itunak tokiko eta eskualdeko agintariak biltzen dituela eta Udal honek 2024ko irailak 25ean egindako Udal Osoko bilkuran onartu zuela Herriko klima eta energia

jasangarriaren plana. Udalak plana aurrera eramateko konpromezua hartu zuen, kontutan edukitzekoa da Oiartzungo udalaren kasuan plana prestatua eta bidalita dagoela, bigarren pausua bi urtero planaren jarraipena egitea litzateke eta azkenik, laur urtera isurien inguruko datuak eguneratu beharko dira. Bestalde, Itun honi esker beste herrietatik ikasteko aukera izango dugula azaltzen du Alkateak, horretaz gain herrien arteko elkarlana sustatuko duela eta ikusirik bizi dugun klima egoera larria denei dagokigula, egoki ikusten da aipatutako itunera atxikitzea.

Aurreko guztia ikusita, Lurralde batzordeak 2025eko urriaren 15ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzazak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Klima eta energiaren aldeko Alkatetzen Itunera atxikitzea.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea atxikitze gutuna sinatzeko eta “My Covenant”-en izena emateko.

Hirugarrena.- Honako betebeharrak onartzea:

- Tokiko Klima eta Energia Plana 2 urteren buruan prestatu eta bidaltzea. Onartua eta bidalita dago.
- 2 urtero Planaren jarraipenaren berri ematea.
- 4 urtero isurien inguruko datuak eguneratzea

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

-V-

ALTZIBARKO GUNE ESTALIRAKO URTE ANITZEKO KREDITUAREN ONARPENA

Altzibargo auzoan, Olaldeko atzealdean, Udalak gune estali bat egitea aurreikusten duela azaltzen du Alkateak. Proiektua egiteko aurreikusi den aurrekontuaren 1.605.000,00€-ko kopuruarengatik, 2025 eta 2026. Urteko aurrekontuetatik finantzatzea proposatzen da. Azaltzen diren kopuruengatik ulertzen da urte anitzerako kreditua eskatu beharko duela udalak eta proiektu hau aurrera eramateko Ubaltzak onartu behar duela. Behin onartuta, azaroan kontratazio mahira emango da lanei hasiera emateko.

Aurreko guztia ikusita, kontu-hartzailearen txostenarekin baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2025eko urriaren 16ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzazak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehenen- Altzibarko gune komunitarioaren proiektua urte anitzeko gastu bezala onartzea.

Bigarrena.- Proiektu honentzat ondorengo kredituak eta kontsignazioak onartzea:

GASTUA	Altzibarko gune komunitarioa	A dokumentua	Partida
2025eko kreditua	802.500,00	2709/2025	1 0352.622.342.00.02.2025
2026ko kreditua	802.500,00	2710/2025	5 0352.622.342.00.02.2026
Gastu Osoa	1.605.000,00 €		

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

- VI -

OIARTZUNGO ELORSORO KIROLDEGIA, MADALENSORO PILOTALEKUA ETA UDAKO IGERILEKUA UDAL INSTALAZIOEN ZERBITZU KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA

Alkateak azaltzen du, 2023ko irailaren 29an onartu zuen Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak Oiartzungo Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako Igerilekua udal instalazioen zerbitzu-kontratuaren espedientea.

2023ko abenduaren 20an erabaki zuen Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak kontratua BPXPORT XXI S.L. enpresari esleitzea, 1.046.614,25€-ko prezioan BEZik gabe eta iraupena urtebetekoa izanik. Lehengo urtean kontratua urte betez luzatzea erabaki zen eta orain berriz beste urtebeteko luzapena proposatzen da, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra artekoa.

Aurreko guztia ikusita, Kontratazio teknikariaren txostenarekin bat eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak 2025eko urriaren 16an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehen. Onartzea Oiartzungo Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako Igerilekua udal instalazioen zerbitzu kontratuaren urtebeteko bigarren luzapena, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra artekoa, baldintza eta ezaugarri berdinetan.

Luzapena nahitaezkoa izango da enpresarentzat, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago ebatzi denez, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2. artikuluan xedatzen den moduan.

Bigarrena. Gastu hori Udalaren aurrekontuko 1 0352.227.342.00.98.2026 partidaren kontura kontabilizatuko da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

2025-2027 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. ALDAKETA. HASIERAKO ONARPENA

Kasu honetan aldaketa bakarra dela eta herriko organoari dagokiola aipatzen du Alkateak. Jabetzan udalarena ez den organoa da, baina udalak aurrekontuan gastua jasota eta konpromezua hartu du organoa eraberritzeko, kontua da udalaren jabetzakoa ez denez, dirulaguntza bidez egingo direla eraberritzeko lanak eta hori dena hitzarmen bidez jasota dagoela azpimarratzen du alkateak. Aipatutako hitzarmena, Oiartzungo parrokia, Organo zale elkarte eta Udalaren artean sinatutako da.

Eraberritze lanen %50 Foru Aldundiak finantzatuko du eta udalak bi urtetan % 25-a finantzatuko du, hau da 2026. eta 2027. urtetan. Bein hitzarmena sinatuta, eraberritze lanak hasiko dira.

Bi puntu aipatzen ditu Alkateak, lehenengoa, Organo zale elkarte bat dagoela proiektu honen atzean eta ondare hau berreskuratze aldera beraiek ere %25 finantzatuko dutela. Bigarrena, nahiz eta organoa parrokiarena izan, honek ez duela finantzaziorik egingo, baina hitzarmen bidez egingo denez eta bertan jasota dago, erabilera publiko bat edukiko du organoak.

Aurreko guztia ikusita, Idazkariaren eta Kontuhartzailearen txostenarekin bat eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak 2025eko urriaren 16an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako :

AKORDIOA

Lehenen.- 2025-2027 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2. Aldaketa onartzea, 4. lerro estrategikoan, kulturaren dinamizazioan, honako programa hau gehituz:

4. lerro estrategikoa: kulturaren dinamizazioa	
Programaren deskribapena	Oiartzungo San Esteban elizako Cavaillé-Coll organoaren zaharberritzean laguntzea
Helburua	Oiartzungo San Esteban elizako Cavaillé-Coll organoaren zaharberritzea
Hartzaileak	Oiartzungo Parrokia
Dirulaguntza mota	Itunpekoa
Zenbatekoa (2026-2027)	70.538,02 € (bi urtetan, 35.538,02 euro 2026ko aurrekontuaren kontura eta 35.000 euro 2027 urteko aurrekontuaren kontura)
Aurrekontu aplikazioa	Sortzeko
Adierazleak	Memoria, txosten ekonomikoa.
Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	Indarraldia: bi urte Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.

Bigarrena.- Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratuz, nahi duenak espedientea aztertu eta bere kasuan, alegazioak edo erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe hori igarota alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, 2025-2027 Plan Estrategikoaren 2. aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

-VIII-

BIDAIARIAK AUTO-TAXIZ GARRAIATZEKO ZERBITZUAREN 2026. EKITALDIKO TARIFAK ONARTZEA.

Aurreko urtean onartu zuen Oñartzungo udalak, herriko taxilariak Donostiako erregimen eremuan sartzea eta 2025eko urriaren 14 ko eremu horretako Jarraipen Batzordeak proposatu du, 2026. Urterako taxien hiri zerbitzuaren tarifen kontzeptu guztietan %2,4ko igoera aplikatzea. Txostenean ikus daitekeen moduan hiru tarifa ezberdin daude eta Oñartzunen kasuan bigarren tarifaren pean atxikituko da, urtarilaren 1ean, 24 orduz, eta abuztuaren 2an, 3an, 4ean, 5ean eta 6an, egun horietan ere 24 orduz.

Idazkariak hitza hartzen du. Gogorarazten du, erregimen bereziko zonaldean gaudenez, urtero egutegi bat onartzen dela Eskualdeko eta Buruntzaldeako taxistek urtarilaren 1ean, 24 orduz, eta abuztuaren 2an, 3an, 4ean, 5ean eta 6an, egun horietan ere 24 orduz Oñartzunen lan egiteko aukera eduki dezaten.

Argitu nahi du, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko Jarraipen Batzordeak bidalitako proposamen hau batzorde guziak egin ondoren jaso genuela, horrek esan nahi du diktaminatu gabeko gai bat dela eta Eusko Jaurlaritza denez tarifik onartzen dituen entitatea, proposamen hau Udalbatza honetatik pasatzeko premia ikusi da.

Beraz, lehenik premia bozkatzeko da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

Aurreko guztia kontutan hartuta, Kontratazioko teknikariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien Batzordearen irizpenik gabe, akordioa hilabete honetan hartzeko eta jakinarazteko premia dela eta, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

Lehen.- Onartzea Oñartzungo auto-taxi garraiorako hiri barrutiko zerbitzuen 2026ko tarifik, honako baldintzetan:

2026KO TARIFEN PROPOSAMENA
(Eurotan (€) adierazita)

2026KO TARIFEN PROPOSAMENA (Eurotan (€) adierazita)								
1. TARIFA			2. TARIFA			5. TARIFA		
Gutxienekoa	Egindako km	Itxaronaldia orduko	Gutxienekoa	Egindako km	Itxaronaldia orduko	Gutxienekoa	Egindako km	Itxaronaldia orduko

6,414243	0,900812	26,15302	7,431496	1,397594	34,870693	7,447148	1,446511	36,091084
----------	----------	----------	----------	----------	-----------	----------	----------	-----------

Egutegiari dagokionean, Oñartzun Erregimen Bereziko Eremura atxikituko da, 2. tarifaren pean, urtarilaren 1ean, 24 orduz, eta abuztuaren 2an, 3an, 4ean, 5ean eta 6an, egun horietan ere 24 orduz.

Bigarrena.- Akordio hau bidaltzea Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzara.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EH Bildu 12, EAJ/PNV 3
Aurka		
Abstentzioa		

Berri emateak eta beste organoen jardueraren jarraipena azaltzeko Alkatek Idazkariari hitz ematen dio.

-IX-

2025-KALD-000006-00 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA

Kreditu gaikuntza bat dela dio Idazkariak, 43.811,55 €-koa eta hau udalak Gipuzkoako Foru Aldunditik jasota dirulaguntzei dagokiela azaltzen du.

Udalak egindako aurreikuspena 0€-koa zenez, jasotakoarekin lehen aipatutako zifra gehitu da. Hauek dirulaguntzen partidei lotuta daude ala nola, Bizikidetza programa, Memoria Historikoa programa, Gipuzkoan udala egitasmoa, Ingurumen ekimenak eta pertsonalari aurrerakinak.

-X-

2025-KALD-000007-00 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA

Kredituaren hainbat murrizketa eta gehikuntza egon direla azaltzen du Idazkariak.

Murrizketei dagokienez, Pertsonal gastuetan 52.300€ eta gastu arruntetan 23.527,36€, guztira 75.827,36€ izanik.

Bestalde, gehikuntzei dagokienez, gastu arruntak 52.300€ eta transferentzi arruntak 23.527,336€, guztira 75.827,36€

-XI-

2025-KALD-000008-00 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA

Hau ere kreditu gaikuntza bat dela dio Idazkariak, 246.975,60€-koa, lehen bezala dirulaguntzei lotuta, aurreikuspena 0€-koa izanik, Edil bidegorriak, Eusko Jaurlaritzako enplegu plana Oarsoaldearen bitartez eta Arditturin hainbat lan egiteko diru sarrerak jaso dira.

Aipatutako diru sarrerei lotuta hainbat gastu ere egon dira, horien artean, bidegorrietara bideratutako 137.795,14€ eta Oarsoladeko Enplegu Plana egiteko kontratuari dagokionez 73.547,50 € eta meategiko irteerak 45.970,54€ . Hau esan bezala dirulaguntzei lotuta eta hauentzako ezarri diren helburuetarako.

Zalantzarik eduki ezean udaleko kontuhartzailletza sailean argituko dituztela aipatzen du.

-XII-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA, KONTU OROKORREI KONTU BATERATUEN MEMORIA GEHITU IZANAREN BERRI EMATEA ETA OIARTZUNGO UDALERRIAN HIRI-GARBIKETAKO ETA HIRIKO HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOKO ZERBITZU KONTRATUAREN NAHITAEZKO LUZAPENA AMAITUTZAT JOTZEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2025eko irailaren 22tik urriaren 24ra arte.

Zk. 2025/1642tik 2025/1874era.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2025eko urriaren 14ean eta urriaren 28an, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2025eko urria:

Loreak - eskelak	30
Bazkariak - luntxak	782,02
Bidaiak	198,96
Guztira	1.015,98

3. 2025eko hirugarren hiru hilekoari dagokion aurrekontuaren exekuzioaren, aurrekontuz kanpoko mugimenduen eta diruzaintzaren egoeraren berri ematea:

2025eko udal aurrekontuen uztaila-iraila hilabeteetako exekuzioaren berri eman da, eranskin modura aurkezten den dokumenturen bidez. Halaber, 2025eko diruzaintza planaren exekuzioa, diruzaintza kontua, aurrekontuzkoak ez diren kontuak eta diru-fluxuen egoera-orria dokumentuak ere aurkezten zaizkio Udalbatzari. Gogorarazten da uneoro agiriok kontu-hartzailletzako bulegoetan egongo direla eta web orrian ere zintzilikatuko direla edonork ikusteko.

4. Gai berezi bezala, Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta hiriko hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzu kontratua daukagu. Zerbitzuaren inguruan Udalak hartutako erabakiari orain arte zerbitzua emandako enpresak errekurtsioa aurkeztu ondoren, 2025eko ekainaren 30ean ez-ohiko osoko bilkuran, zerbitzu honen inguruko nahitaezko luzapen kontratua onartu zen. Epaileak udalari arrazoia eman ondoren, luzapena amaitutzat ematen da eta enpresa berriarekin kontratua sinatzen da.

-XII-

ESKARI-GALDERAK

Ez dago eskari galderarik.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:20ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Xabier de la Mota

1. **ERANSKINA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA UDALAREN ARTEAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA.**

**ERANSKINA, ETXEKO LAGUNTZA
ZERBITZUA FINANTZATZEKO
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
ETA OIARTZUNGO UDALAREN ARTEKO
HITZARMENA LUZATZEKO.**

**ADENDA DE PRÓRROGA DEL
CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
Y EL AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN
PARA LA FINANCIACIÓN DEL
SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.**

Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

En el lugar de la firma electrónica.

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2025eko irailaren 10ean egindako bileran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

Eta bestetik,

Joana Mendiboure, Oiartzungo Udaleko alkatea eta ordezkaria, 2025eko urriaren 29ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

AZALTZEN DUTE

I.- Aldeek 2022ko uztailaren 1ean sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oiartzungo Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena, etxeko etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko.

II.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulak hitzarmenaren indarraldia ezartzen du, eta adierazten du gehienez lau urtekoa izango dela. Nolanahi ere, hitzarmena sinatu duten alderdiek

REUNIDOS

De una parte,

Doña MAITE PEÑA LÓPEZ en calidad de diputada foral del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en su representación, expresamente autorizada para este acto por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de septiembre de 2025.

Y de otra parte,

Joana Mendiboure, en calidad de alcaldesa del Ayuntamiento de Oiartzun y en su representación, expresamente autorizada para este acto por acuerdo Plenario Municipal de 29 de octubre de 2025.

EXPONEN

I.- Que las partes firmaron el 1 de julio del 2022 el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Oiartzun para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.

II.- Que la cláusula decimocuarta del convenio establece la vigencia del mismo, señalando que no podrá ser superior a cuatro años, sin perjuicio de que las partes firmantes del

aho batez eta hura amaitu baino lehen adostu ahal izango dute lau urte gehiagoz luzatzea edo azkentzea.

III.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulan xedatutakoaren arabera, aldeek hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzea adostu zuten, hasierako lau urteko indarraldia agortu arte, epe hori 2025eko irailaren 30ean amaituta.

IV.- Hamalagarren klausularekin bat etorriz, eta hasierako indarraldia amaituta, alderdiek egokitzen jotzen dute hitzarmena urtebetez luzatzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Helburua.

Hitzarmena urtebetez luzatzea erabaki da, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era. Luzapen hori amaituta, alderdiek beste luzapen batzuk adostu ahal izango dituzte, betiere hitzarmenean aurreikusitako beste lau urteko gehieneko aldia errespetatzen badute.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak.

Hitzarmenaren seigarren klausulan adierazitakoaren arabera kalkulaturako urteko

convenio podrán acordar unánimemente y antes de la finalización de dicho plazo, su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

III.- Que en base a lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del convenio, las partes acordaron extender los efectos económicos del convenio hasta agotar su vigencia inicial de cuatro años, venciendo dicho plazo el 30 de septiembre de 2025.

IV.- Que de conformidad con la cláusula decimocuarta, y agotada la vigencia inicial, las partes estiman procedente prorrogar el convenio por un año, desde el 1 de octubre de 2025 al 30 de septiembre de 2026.

Con base a lo anterior, ambas partes han convenido la formalización de la presente adenda de acuerdo con las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

Se acuerda prorrogar el convenio por un año, desde el 1 de octubre de 2025 al 30 de septiembre de 2026. Una vez finalizada esta prórroga, las partes podrán acordar nuevas prórrogas, siempre que respeten el período máximo de cuatro años adicionales previsto en el convenio.

SEGUNDA.- Compromisos económicos asumidos por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La financiación foral máxima anual calculada de acuerdo a lo señalado en la cláusula sexta del

gehieneko foru-finantzaketa 8.192.463,00 eurokoa izango da Gipuzkoako udalerrri guztientzat, honako partida hauen kargura:

convenio, para el conjunto de los municipios de Gipuzkoa será de 8.192.463,00 euros, con cargo a las siguientes partidas:

Udalak / Ayuntamientos	Aurrekontu-partida / Partida presupuestaria
2.017.706,00 €	1 0320.210.461.01.04 2025
6.053.116,00 €	5 0320.210.461.01.04 2026
Mankomunitateak / Mancomunidades	Aurrekontu-partida / Partida presupuestaria
30.411,00 €	1 0320.210.461.06.02 2025
91.230,00 €	5 0320.210.461.06.02 2026

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.

Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

TERCERA.- Subsistencia del resto del convenio.

En todo lo no previsto en el presente documento seguirán plenamente vigentes y aplicables todas las demás cláusulas y disposiciones del convenio, siendo las mismas igualmente de aplicación en cuanto fuere necesario al presente documento.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, se firma electrónicamente el presente documento, en el lugar y fecha de la firma electrónica.

II. ERANSKINA:

BIDE EDO ZORU PUBLIKOAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

Ordenantza hau honako artikulua hauek emandako ahalmenen arabera egin da: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49., 85., 139. eta 140. artikulua, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Korporazioen Ondasunen Erregelamenduaren 77. artikulua, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Korporazioen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

1.- Ordenantza honen xedea da bide edo zoru publikoan terrazak eta instalazio osagarri mugikorak, hala nola eguzkitakoak, toldoak, etab. jartzeko araudi tekniko eta juridikoa ezartzea eta horretarako baldintzak zehaztea. Ez da elementu finkorik onartzen.

2.- Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako soilik, terrazatzat jotzen dira ostalaritzako legeko jardueretan, hala nola tabernetan, jatetxeetan, kafetegietan eta gozotegietan, edo horien antzeko jardura osagarria eta baimendua duten saltokietan eta antzekoetan, osagarri gisa erabiliko diren mahai, aulki eta behin-behineko instalazio mugikorak. Jardura-lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoei emango zaie horretarako baimena.

3.- Ordenantza hau terraza eta mahaitxoei aplikatzeaz gain, bide publikoa okupatzen duten, edo funtzionatzeko horren beharra duten edozein motatako makina edo objektuei aplikatuko zaie, hala nola jardueraren elementu osagarriei (toldoak, alboetako babesak, upelak, mahai altuak, etab.).

4.- Debekatuta dago artikulua honetan, eta oro har ordenantzaren, zehaztu ez diren elementuak jartzea, hala nola hozkailuak, mostradoreak, armairuak, bozgorailuak-bafleak, etab.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Ordenantza hau erabilera publikokoak diren udalerriko toki guztiei aplika dakieke (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.), titulartasun publikoko zein pribatukoak izan. Erabilera publikoko izatearen baldintza egitatezko egoerak eta indarrean dagoen planeamenduko zehaztapenak aplikatzeak zehaztuko du.

Nolanahi ere, terraza jartzeko lizentziarako nahitaezkoa da aldez aurretik ostalaritza-jardura garatzeko dagokion baimena lortzea.

3. artikulua.- Lizentzia aldez aurretik eduki beharra.

Titulartasun publiko nahiz pribatuko espazio publikoetako instalazio horiek erabilera komun eta bereziko kategoria juridikoa dute, eta, kasu bakoitzean, erabilpen horretarako aldez aurretik

lortutako udal-lizentzia edukitzea beharrezkoa izango da. Lizentzia hori ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da.

Ordenantza honek araututako lizentzia aldeztu aurretik eduki beharrik ez dute izango, 1. artikulua ezarritakoa bete arren herriko jai eta ospakizunen inguruan egiten diren aldi baterako jarduerak badira, baina betiere dagokion udal-organoak ezarritako egutegia eta moduak betetzen diren neurrian. Kasu honetan, erabilera honek udalarekin aldeztu aurretik hondakinen bilketarako bitartekoak adostea eskatuko du.

4. artikulua.- Lizentzia ukatzeko arrazoiak. Salbuespenak. Mugak.

1. Udal-organo eskudunak terrazak jartzeko lizentziarik ez ematea erabaki ahal izango du baldin eta:

- a. Bide segurtasunerako kalteak sorrarazten baditu (ikuspena gutxitu, gidariari arreta galarazi, etab.) edo oinezkoen, desgaituen, haur-kotxeen eta abarren zirkulazioa nabarmen eragozten badu.
- b. Ondoko establezimenduei kalteak sorrarazten badizkio (erakusleihoa oztopatu, establezimendurako sarbidea nabarmen murriztu, husteko arazoak, etab.).
- c. Inguruarekin bat ez badator edo formalki desagokoa bada, edo hiri-paisaiaren irakurketa zuzena eragozten badu. Halaber, terrazak eta mahaitxoak jartzea debekatu ahal izango da, bide-segurtasuneko arrazoiengatik, herri-lanengatik edo antzeko beste arrazoi batzuegatik.

Halaber, salbuespenezko kasuetan, Udalak banan-banan aztertuko ditu eskaeran azaltzen eta argudiatzen diren inguruabarrak, eta ezohiko moduan eta arrazoituta eman ahal izango du dagokion lizentzia.

II. KAPITULUA

INSTALAZIOAK IBILGAILU-ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAKO

ESPALOIETAN

5. artikulua.- Bete beharreko baldintzak

1.- Jabari publikoan terrazak jartzeko baimena emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Okupazioa baimentzeko libre geratu behar duen pasabidea 2 metrokoa izango da gutxienez, fatxadatik neurtuta. Udalak kasu bereziak salbuetsi ahal izango ditu, adibide gisa: pasalekua ez izatea,...
- b. Mahaiek eta aulkiek hartzen duten espaloizatiaren gehieneko zabalera ez da inola ere espaloizatiaren zabalaren erdia baino handiagoa izango, espaloizatiaren zabalera 4 metrotik gorakoa denean izan ezik. Lau metrotik gorakoa bada, espaloian gutxienez 2 metroko pasabide librea utzi behar da, jarritako hiri-altzarien elementuak horren barnean sartu gabe. Oinezkoentzat errespetatu beharreko pasabide librea aldatu ahal izango da, Udalaren erabaki arrazoitu baten bitartez, oinezkoen joan-etorri handiak hori eskatzen duenean.

- c. Mahaiek eta aulkiek ez dute inola ere galaraziko edo oztopatuko atari, merkataritza-etxabe eta inguruko finketarako sarbidea, ezta oinezkoen arintasuna ere, eta ezin izango dira jarri oinezkoen pasabideen parean edo jendea ibiltzen den lokaletako larrialdi-irteeren parean. Inguruko lokal eta etxebizitzetarako sarbidearen aurrean 2 m-ko zirkunferentzia libre utzi beharko da.

Establezimenduaren arduraduna izango da neurri hori betetzearen arduraduna, eta, beraz, behar beste aldiz zuzendu beharko du elementuen posizioa, bezeroek mugitu badituzte.

- d. Instalazioak eta/edo okupazioak luzetara gehienez hartuko duen espazioa ez da izango jarduera nagusiaren establezimenduaren fatxadaren luzera baino handiagoa, Udalak aldamenekoei kalterik eragiten ez zaiela uste duenean eta lizentzia-eskaerarekin batera aldamenekoen baimen idatzia aurkezten denean izan ezik.

Ez da baimen horren premiarik izango espaloiak, kasu bakoitzaren arabera, fatxadatik neurtuta, 4-5 metro libre utzi eta hortik aurrera eskatutako okupaziorako aukera ematen duenean. Udalak erabakiko du kasu bakoitzean gutxieneko distantzia.

Mahai kopurua tabernaren pareko espazio publiko librearen arabera zehaztuko da. Baimenak kopurua aipatuko du.

III. KAPITULUA

INSTALAZIOAK OINEZKOEN GUNEETAN, PLAZETAN ETA ESPAZIO LIBRE BEREZIETAN

6. artikulua.- Oinezkoen kaleak.

1.- Oinezkoen eremu edo kaleak nagusiki jendarteko topagune izango dira. Horregatik, eremu horietan ez da mahairik eta aulkirik jartzeko baimenik emango, udalak adierazitako pasabide librerako aukera eman ezean.

Neurri horretatik kanpo geratzen dira terrazaren erabilera eta gainerako aisialdi- eta pasabide-erabilerak bateragarri egiteko adinako azalera duten plazak. Elementuen posizioa eta kopurua kasu bakoitzean aztertuko dira.

2.- Oinezkoen eremuetan terrazak ezin izango dira jarri ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dagoen lekuan (errodadura-eremua).

7. artikulua.- Plazak eta espazio libre bereziak.

1.- Eremu horietan terrazak jartzeko eskabideak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera erabakiko dira, orokorrean aplikagarri izango diren muga hauek kontuan izanda:

- a. Lorategi-eremuak, jolas-guneak eta atsedenlekuak errespetatuko dira. Ez da oinezkoen zirkulazioaren arintasuna oztopatuko.

b. Eremu horietan okupazio-lizentzia eskatu ahal izango duten bakarrak izango dira 1. artikuluan zehaztutako lokalen pertsona edo entitate titullarrak.

c. Baimendutako terrazek hartzen duten eremua gehienez ere Udalak baimendutakoa izango da, lorategi-eremuak, jolas-guneak eta beste hiri-altzarien eremuak kenduta. Dena den, Udalak kasu bakoitzean erabakiko du okupatu daitekeen gehiengo azalera eta gune horietan non eta nola jarri beharko diren mahaiak eta aulkiak, hori guztia kapitulu honetan arautzen diren plazen edo espazio libre berezien erabilera publikoa bermatzeko asmoz.

d. Debekatuta dago mahaiak eta aulkiak pasabideetan jartzea.

e. Eremu bera okupatzeko eskabide bat baino gehiago egonez gero, establezimenduek hartu beharreko azalera Udalak erabakitakoa izango da, azaldutako neurriak oro har bete daitezten.

2.- Okupazioa ezin izango da udalak baimendutako azalera baino handiagoa izan.

3.- Behin aipatutako baldintzak kontuan hartuta, gehienez ere mahai- eta aulki-kopuru bat baimenduko da establezimendu bakoitzeko, 5.1.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

IV. KAPITULUA

BALDINTZA TEKNIKOAK ETA PUBLIZITATEKOAK

8. artikulua.- Publizitatea

Baimendutako eremua besterik ez da okupatuko.

Baimendutako establezimendu bakoitzeko mahai- eta aulki-kopurua, gehienez, baimendutako gehieneko eremuan banatzearen ondoriozkoa izango da, Udalak ezarritako gutxienekoak errespetatuz. Udal-zerbitzu teknikoek egingo dute banaketa hori, eta txosten bat egingo dute horri buruz, establezimendu bakoitzerako gehieneko kopurua eta terrazaren neurriak eta elementuen kokapena adierazita. Agiri hau establezimenduan bertan erakusgai egongo da.

9. artikulua.- Baldintza teknikoak

- a. Mahaiak eta aulkiak okupatzen duten eremua egun osoan garbitasun- eta higie-negoera egokian edukitzeko betebeharra du baimenaren titullarrak. Erratza pasatu eta garbiketa egin beharko du behar den guztietan.
- b. Horretaz gain, lanaldi bakoitzaren amaieran altzarien elementuak establezimenduaren barrura sartu beharko ditu, Udalak berariaz baimendutako kasuetan izan ezik. Altzariak kanpoan uzteko baimena jasoz gero, metatuta eta lotuta utzi beharko dira. Okupatutako eremua garbitasun-egoera ezin hobean utzi beharko da.
- c. Debekatuta dago edozein ainguratze-sistema erabiltzea. Terraza edo lurra estaltzeko edo eguzkitakoak edo olanak egonkortzeko balio duten elementuen erabilera edo instalaziora ere zabaltzen da debekua, olanaren tamainarekiko proportzionala den erdiko kontrapisua baino harago badoaz.

- d. Baimendutako instalazioak bide publikoan okupatzen duen gunean edo hurbileko hiri-osagaietan kalteak edo akatsak eragin dituela ikusten bada, udal-administrazioak kalte horiek konpontzeko dagokion diru-zenbateko osoa exijituko du.
- e. Era berean, ostalaritzako jardueraren titularrak jarduera uzten badu, bide publikoa aurreko egoeran laga beharko du.

10. artikulua.- Beste elementuak

Aldez aurretik eta berariaz baimendutako eguzkitakoak, itzalkinak eta toldoak baino ezin izango dira jarri.

Debekatuta egon dira:

- Gordailu eta armairuak
- Terrazen eremua berotu edo freskatzeko sistemak/gailuak
- Edari eta izozkietarako hozkailuak, litxarreriak, jolasak edo opariak saltzeko gailuak.
- Ikus-entzunezko ekipoak eta gailuak

11. artikulua.- Altzarien baldintzak

1.- Hiri-altzariei (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak) nolabaiteko harmonia eta estetika emateko, altzari horiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte ahal dela:

- Mahai eta aulkietarako, egurra eta plastiko gogorra lehenetsiko dira. Aluminiozkoak ere onartu dira, baina ahal dela ekin egingo dira zarategatik eta emakumeen osasunean eragin negatiboa dutelako. Edozein kasutan, kolore neutroak erabiliko dira.
- Inola ere ezin izango da erabili marka komertzialen kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko altzariak.
- Mahai eta aulkietan gehienez 15 x 15 cm-ko publizitatea jarri ahalko da.
- Mahaiek eta aulkiak gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, zaratak arintzeko.
- Aise pilatzeko modukoak izango dira, bilduta daudenean ahalik eta espazio gutxien okupa dezaten.

2.- Berariaz debekatzen dira aurrez deskribatutako baldintzak edo materialak betetzen ez dituzten publizitate-terraza estandarrak.

3.- Altzariak, oro har (mahaiak, aulkiak, toldoak, etab.), kontserbazio-egoera onean mantendu beharko dira beti.

4.- Eguzkitakoak: Mahai bakoitzerako indibidualak ezin izango dira lurrean ainguratu. Mahai bat baino gehiago estaltzen duten eguzkitako eta toldoetarako, berariazko lizentzia beharko da, eta ezin izango dira lurrean ainguratu.

5.- Ez da kablerik onartzen, ez airez, ez zuhaitzetan, energia elektrikoa terrazaraino garraiatzeko kableak barne.

6.- Terrazak, mahaitxoak eta elementu osagarriak jartzerakoan, Udal honek irisgarritasun unibertsala bermatzeko onartutako arauak eta planak hartuko dira kontuan. Era berean, nahitaez bete beharko dira Eusko Jaurlaritzaren 20/1997 Legean eta 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean jasotako arauak eta baldintzak.

7.- Terrazetako edozein elementu jarri, bildu eta mugitzerako momentuan zaratarik gabe egiteko neurriak hartu beharko dira. Materialak garraiatzeko modu bezala gurpildun karroak erabili daitezke, beti baldin eta gurpilek soinua ateratzen ez badute. Terrazako altzariak lotzeko kateak erabiltzen badira, plastikozko edo bestelako materialez forratuta egon beharko dute, zarata egin ez dezaten.

12. artikulua. Euskararen erabilera sustatzeko neurriak.

Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak euskaraz idatziko dira: menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharrak, arbeletako oharrak... Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabiltzea beharrezkoa bada, euskara nabarmendu beharko da.

V. KAPITULUA

ORDUTEGIAK

13. artikulua.- Baldintza orokorra

Debekatuta dago auzokoen lasaitasuna galaraztea zarata, oihu edo bestelako eragozpenen bidez, batez ere 22:00etatik aurrera. Nolanahi ere, debekatuta egongo da kanpoan megafonia edo musika-ekipoak jartzea.

14. artikulua.- Ordutegia

1. Okupazio-ordutegia honako hau izango da:

Instalazioa jarri: 07:30etatik aurrera, astegunetan eta 08:30etatik aurrera, asteburuetan, beti ere espazio publikoko garbiketa-lanak oztopatu gabe.

Instalazioa erretiratu

Aste Santutik urriaren 15era:

Igandetik ostegunera: 23:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 24:30ean.

Urteko gainerako egunetan:

Igandetik ostegunera: 23:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 24:00etan.

2.- Instalazioa erretiratzeko ordua iristen denerako, baimendutako material guztia erretiratuta eta okupatutako gunea garbi utzi beharko du titularrak.

3.- Udal-organo eskudunak, salbuespen gisa, instalazioa erretiratzeko ordutegi malguagoa baimendu ahal izango du, bai udalerri osorako, bai udalerriko eremu jakin baterako, herriko jaietan eta garrantzi bereziko beste egun batzuetan.

4.- Leku berezietan, hala nola portxeetan eta plaza itxietan, edo etxebizitzan salaketak daudenean edo bizilagunei eragozpenak sortzen zaizkiela egiaztatzen denean, terrazak jartzeko eta jasotzeko ordutegia mugatu ahal izango da.

5.- Establezimenduen titularrek eragotzi egingo dute, terrazak ixteko ordutik aurrera, erabiltzaileek edariak lokaletik kanpo ateratzea.

15. artikulua. - Garbitasuna

Bide publikoa okupatzen duten mahaietan bazkariak eta/edo afariak eman nahi dituzten establezimenduek espresuki eskaera egin beharko dute bide publikoan terrazak jartzeko baimen eskaerarekin batera. Udalak kasu bakoitzean erabakiko du baimena eman edo ez.

Zerbitzua ezin izango da inola ere eman baimendutako terrazako mahai eta aulkietatik hurbil dauden hiri-altzarien beste elementu batzuetan.

Bazkari-zerbitzua baimentzen den kasuetan, erabilitako eremua egunero garbitu beharko da garbitasun produktu egokiak erabiliz.

Terrazak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko moduan kudeatuko dira, bilgarriak, apaingarriak eta erabili eta botatzeko beharrezkoak ez diren beste elementu batzuk saihestuz.

VI. KAPITULUA

BAIMENA EMATEKO BALDINTZAK

16. artikulua. - Iraupena

Bide publikoan terrazak jartzeko lizentzien iraupena gutxienez hilabete naturalekoa izango da, eta baimendutako epealdia bukatutakoan automatikoki bertan behera gelditzen dira lizentziok.

17. artikulua. - Prozedura

1.- Terrazak eta elementu osagarriak jartzeko, aurrez udal-baimena eskuratu behar da.

2.- Horretarako, interesdunak udaletxeko bulegoetan jaso ahal izango duen eskabide normalizatua aurkeztu beharko du, eta horrekin batera ondoko establezimenduen titularren edo bizilagunen baimena, baldin eta jarri nahi duen instalazioak ondoko establezimenduen fatxada edo portala ere hartzen badu.

3.- Lizentzia-eskabidearekin batera (edo lizentziaren aldaketa garrantzitsu bat egitean, hala nola mahai-kopurua, kokalekua, etab.), okupazioaren azterlan/bozeto bat ere aurkeztu beharko da, non, gutxienez, puntu hauek azalduko diren:

- a) Lokalaren kokalekua zehaztuko da, instalazioak hartuko duen azalera, fatxadaren luzera eta ondorioz sortuko diren pasabideen zabalera adieraziz. Horretaz gain, dagoen edozein oztopo finkoren berri eman beharko du (trafiko-seinaleak, zuhaitzak, eserlekuak, hiri-altzariak, etab.).
- b) Terrazan erabiliko diren altzariak: mahai kopurua eta toldoen ezaugarriak eta kopurua
- c) Eskabidea zein aldi eta iraupenerako egin den adieraziko da.
- d) Ondoko etxebizitzaren eta lokalen baimena duela egiaztatzen duen idatzizko agiria aurkeztuko da, hori eskatzen den kasuetan.
- e) Jarduera itxitaikoan mahaiak eta aulkiak kanpoan utzi nahi izanez gero lizentzia-eskaerarekin batera jakinarazi beharko da.

Adierazitako informazio horrekin, udaleko hirigintza sailak plano bat osatuko du instalazioak hartzen duen bide publikoaren zatian mahaiak eta aulkiak nola banatuko diren jasoko duena.

Dokumentazio hori aurkeztu beharko da bakarrik ordenantza hau indarrean jarri ondoren egiten den lehen lizentzia-eskaerarekin, baita lizentziaren aldaketa garrantzitsu bat egiten denean ere (mahai-kopurua, kokalekua, etab.).

4.- Baimenaren edukian aldaketa garrantzitsua eragiten duten gainerako kasuetan, interesduna behartuta egongo da baimena eskatzera artikuluko honen 3. atalean xedatutakoaren arabera.

5.- Interesdunak altzariak lokalaren barruan ez jasotzea eskatu nahi badu, baimena eskatu beharko du altzariak bide publikoan pilatzeko, eta plano batean adieraziko du egiten duen lekua proposamena.

18. artikulua.- Baldintza orokorrak

1.- Lizentziak beti jabetza-eskubideari kalterik egin gabe eta hirugarrenei eragozpenik sorrarazi gabe emandakotzat joko dira. Eta ezin izango da erabili lizentzia hori onuradunak bere jarduerak betetzerakoan eragin lezakeen erantzukizun zibil edo penala kentzeko edo murrizteko, eta, halaber, lizentziak ez du titularra beste baimen batzuk eskuratu behar izatetik salbuesten.

2.- Lizentziaren dokumentuan honako hauek zehaztuko dira: instalazioaren eta elementuen baldintzak, okupatu daitekeen azalera, mahai- eta aulki-kopurua, lizentziaren indarraldia, eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunak, hala nola, libre utzi beharreko oinezkoen pasabidea eta mahaiak pilatzeko lekua (lokalaren barnean izatea salbuesten den kasuetan). Halaber, plano bat erantsiko da, okupatu daitekeen gehieneko azalera eta kokapena adierazita.

3.- Lizentziak prekario izaera izango du beti eta, trafikoko, urbanizazioko, Udalak berak antolatu edo baimendutako ekitaldietarako okupazioko inguruabarrek edo interes orokorreko beste edozein inguruabarrek hala gomendatzen dutenean, udal-agintariak baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko agindu ahal izango dute, modu arrazoituan; horrenbestez,

partikularrak agindutakoa bere kontura egin beharko du, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

4.- Ordenantza honek arautzen dituen lurzoru publikoaren erabilera eta instalazioa direla-eta, bide publikoan eta hirugarrenei kalterik eraginez gero, lizentziaren titularra behartuta dago kalte guztiak konpontzera.

5.- Udalak edozein unetan egiazta dezake lizentziaren titular izateko ezarritako baldintzak behar bezala betetzen direla, eta betetzen ez badira, lizentzia baliogabetu egingo da.

Lizentzia lortu ondoren, lizentziari erantsitako planoan adierazitako baimendutako gehieneko okupazio-azalera eta mugaketa errespetatuko ditu lizentziaren titularrak. Plano hori ikusteko moduan egon beharko da instalazioan bertan, eta udal-agintaritza eskudunari erakutsi beharko zaio, hala eskatzen badio.

19. artikulua. - Baimenak berritzea

1.- Baimenek gutxienez hilabete natural baten eta gehienez urte natural baten iraupena izango dute. Epe hori bukatzean, interesdunek baimena berritzeko eskatu beharko dute.

2.- Baimenaren indarraldia bukatutakoan, lizentziaren titularrak eta, hala badagokio, dagokion establezimenduarenak, instalazio guztia kendu eta bide publikoa aurreko egoeran utzi beharko du.

3.- Hurrengo denboraldietarako lizentzia berritzea eskatu nahi bada, eta lizentzian aldaketa handirik egin behar ez bada, nahikoa izango da eskabidearekin batera ondoko establezimenduen eta bizilagunen adostasuna berritzen duen dokumentua aurkeztea, baldin eta lizentzia eragin zuten egoerako baldintzak aldatu ez badira.

Lizentzia berritzeko eskaerak automatikoki onartutzat joko dira, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioarekin batera okupazioari dagozkion tasak eta ordainarazpenak ordaindu izanaren agiria aurkezten bada; ordaintzen diren unetik aurrera onartutzat joko dira, betiere Udalak eskatutako baimena ez ematea erabaki eta hilabete epean jakinarazten ez badio eskatzaileari.

20. artikulua. - Hondakinak

1.- Izaera orokorreko edo ordenantza honetatik eratorritako betebeharez gain, instalazioaren titularra behartuta dago baimentzen den okupazioko lurra, instalazioa bera eta elementu osagarriak garbitasun-, segurtasun- eta apaintasun-egoera ezin hobean edukitzera; eta horretarako, beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak, etab., betiere hondakinak frakzioetan jaso eta udal zerbitzura eramateko betebeharra betez, hondakinen udal ordenantzak ezartzen duen bezala.

Nolanahi ere, terrazen instalazioak ez ditu bideak garbitzeko lanak oztopatuko.

VII. KAPITULUA

ZIGOR-ARAU BIDEA

21. artikulua.- Lizentziarik gabeko instalazioak.

1.- Lizentziarik gabe bide publikoan jarritako terrazak udal-agintariek kendu ahal izango dituzte berehala eta kautelaz, eta baita dagokien biltegian utzi ere. Hori ez da eragozpen izango, hala ere, dagozkion zigorrak ezartzeko.

2.- Zehapen-ondorioetarako, lizentziaren indarraldia bukatutakoan terrazak ez kentzea udal-baimenik ez izatearen parekotzat joko da.

22. artikulua.- Arau-hausteak.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak sailkatzeko orduan, arinak eta larriak izan daitezke.

1.- Arau-hauste arintzat joko dira honakoak:

- a).- Terrazak ezarri den ordutegiaz kanpo jartzea.
- b).- Baimendutako elementu-kopurua baino gehiago jartzea (mahaiak, aulkiak edo bestelako elementu osagarriak) edo baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea.
- c).- Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.
- d).- Okupazio-eremua apaintasun-, segurtasun- eta garbitasun-egoera egokian ez edukitzea.
- e).- Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

2.- Arau-hauste larritzat joko dira honakoak:

- a).- Terrazak eta bestelako elementu osagarriak lizentziarik gabe jartzea.
- b).- 18. artikuluan adierazitakoak (ordenantza honi loturik dauden elementuak 11. artikuluan ezarritako baldintza teknikoak bete gabe jartzea.)
- c).- Zigor-espeditentari hasiera eman aurreko urtean, hiru arau-hauste arin eginak izatea eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.

23. artikulua.- Zigorrak.

1.- Ordenantza honetako arau-hausteak direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:

- a.- Arau-hauste arinak: 200 eta 800 euro arteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal-agindua betetzen ez bada, eta/edo aurrerantzean establezimendua ez izatea gai ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko, 12 hilabeteko epera arte.

b.- Arau-hauste larriak: 800 eta 3.000 euro arteko isuna eta/edo aurrerantzean establezimendua ez izatea gai ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko, 2 urteko epera arte, gertakarien larritasunaren arabera.

c.- 22.1.b) eta 22.2 a) artikuluetan jasotako arau-hauste larriak, Zergen Foru Arau Orokorren arabera zigortuko dira, okupazioarengatik dagozkion tasak ordaindu behar izateari kalterik egin gabe.

2.- Okupazioa gerora legeztatzen bada, eta arau-haustea berriz gertatu ez bada edo udal-aginduek betetzeari uko egin ez bazaio, zigorra soilik ekonomikoa izatera muga daiteke.

3.- Ordenantza honetan ezarritako zigorren zenbatekoak urtero eguneratuko dira automatikoki, Estatuko kontsumoko prezioen indizearen arabera, aurreko urteko zigor-zenbatekoari aplikatuz.

24. artikulua.- Zigor-espedientea.

Bidezkoak diren zigorrak ezartzeko, ezinbestekoa izango da aurrez dagozkion espedientea bideratzea, eta espediente hori martxoaren 16ko 1/2023 Legean, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

25. artikulua.- Betearazpen subsidiarioa.

1.- Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko agintzen badu Udalak, eta instalazioaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu horretarako ezarritako epean, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak elementuak kentzeari ekin ahal izango dio betearazpen subsidiarioz, eta horretarako izendatutako tokian utzi. Jabetzak hortik eskuratu ahal izango ditu, aurrez dagozkion gastuak ordainduta, hala ezartzen baitu Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 102. artikulua.

2.- Artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehienez ere sei hilabetez egongo dira biltegian. Epe hori bukatu eta interesdunak eraman ez baditu, Udalak hondakin gisa kudeatu ahal izango ditu, obligaziodunaren kargura.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Behar bezala justifikatutako salbuespeneko inguruabarrak daudenean (osasun-arlokoak, obrak, udalerrian salbuespeneko jardura puntual batzuk antolatzeak, segurtasun-arlokoak edo antzekoak), ordenantza honetan aipatzen diren jardueren enpresa titularrei terraza jartzeko aldi baterako baimena eman ahal izango zaie.

Xedapen gehigarri honetan zehaztutako baimenak lortzeko prozedura honako hau izango da: Pertsona edo erakunde interesdunak eskaera egingo du gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin, eta gero alkateak ebazpena emango du. Ebazpenean, bidezkoa bada, salbuespen-egoera justifikatuko da, eta baimena emateko salbuespeneko baldintzez gain, baimenaren iraupena ere zehaztuko da. Epea bukatutakoan, automatikoki bertan behera geldituko da baimena, erabaki baten premiarik gabe.

Ebazpenean berariaz ezarri ez den guztirako, ordenantza honen aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Alkatetzaren ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, ordenantza honetako VII. kapituluan araututako zigor-araubidea aplikatuko da.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Terrazak jartzeko emandako baimenak pixkanaka ordenantza honetan ezarritako baldintza tekniko eta publizitate-baldintzetara egokitzeko, ordenantza argitaratzen denetik urte beteko egokitzapen-epea ezarri da. Egun horretatik aurrera, terrazak osatzen dituzten osagai guztiek ordenantza honetan ezarritako baldintza teknikoak eta publizitatekoak bete beharko dituzte.

AZKEN XEDAPENAK

- 1.- Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera jarriko da indarrean, behin bere testua osorik argitaratu eta lege horren 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.
- 2.- Udal-agintaritzari berariazko baimena ematen zaio lizentziak eman ahal izateko eta ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, betiere administrazio-prozedura erkideari buruzko legedian jasotako printzipioen arabera.

